

# MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

306 - 2022ko URRIA

LEKUNBERRITIK  
LEZAMARA!





# Lan eskaintza!!!

## Mailope Aldizkariko kazetari izan nahi duzu?

Pertsona euskalduna behar dugu Mailope Aldizkari-ko kazetari taldean aritzeko.

Hilabetekariko edukiak proposatzea eta sortzea izanen da bere eginkizuna.

### Kontuan hartuko dira:

- Aritz, Betelu, Lekunberri edo Larraungoa izatea edota eskualdea eta herritarrak ezagutzea.
- Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Mailope proiektuan jarduteko gogoia
- Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) edo euskara maila egiaztatzen duen titulu baliokidea izatea.
- Komunikazio arloan edo kulturgintzan esperientzia izatea edota horiekin lotutako ikasketak izatea.
- Gidabaimena eta autoa.

Interesa izanez gero, bidali zure hautagaitza pro-po-samena [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) helbidera eta zurekin harremanetan jarriko gara.



## Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak **Tostadak mermeladarekin** eta bertan eskuz egindako madalenak, erroskilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 • 639 778 851 • [aitziberalf@hotmail.com](mailto:aitziberalf@hotmail.com)

## aitz berri

edertasun  
zentroa

Lako beikoa

Betelu 31890

948 513 083

696 732 290

[aitzberri@hotmail.com](mailto:aitzberri@hotmail.com)

Ile-apaindegia

Estetika

Presoterapia

Podologia

Laser-depilazioa eta

depilazio elektrikoa

Dietista-nutrizionista

Mikropigmentazioa ezpai-  
netan

Mikroblading bekainetan

· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:

Albiasu, Aldatz, Ali, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitzu eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:

Maillope Kultur Elkartea.

L.G.: NA 719/93

Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.

[issuu.com/maillopealdizkaria](http://issuu.com/maillopealdizkaria)

· ERREDAKZIOA:

Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:

Arantxa Mikeo, Maiane Arretxea, Lekunberriko Udala, Juan Antonio Garaikoetxea, Eider Martirena, Mikel Huarte, Cederna-Garalur, Bertsozale Elkartea, Lekunberriko EH Bildu, Euskaraldia, Nafarroako Gobernua, Irati Moreno, Labrit.

· PUBLIZITATEA:

Labrit Multimedia - 948 210 103 -

[maillope@labrit.net](mailto:maillope@labrit.net).

· MAKETAZIOA:

Mikel Urriza eta Oroitz Zabala.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra Nafarroako Gobernua

LABRIT  
MULTIMEDIA

04



**KUXKUXEAN** Urriko zorion agurrak

09



**MAITE DITUT MAITE** Urraitz mendiko igoera

10



**ELKARRIZKETA**



Maiane Arretxea Etxeberria

14



**BATZARRE**

18



**ERREPORTAJEA**



Lehorteak hustu ditu Aralarko larreak

20



**KULTURA** Irati Moreno

24



**ERREPORTAJETXOA** Gerra ondorengo elizgizonak

26



**KIROLA** Aurkeztu dituzte Beti Kozkorreko 11 taldeak

28



**PLAZATIK PLAZARA**

31



**AGENDA**


**Aner Elordi Saralegui**

Urriaren 26an, 3 urte.

*Zorionak Aner!! Egun politte pasa eta muxu haundi bat familia guztin partez.*

**Gari Arraztio Estanga**

Urriaren 3an, 6 urte.

**Aiara Arraztio Estanga**

Urriaren 27an, 9 urte.

*Zorionak bikote!! Ongi pasa zuen urtebetetze egunetan eta muxu haundi bat etxekoan partez.*


**Aihen Eleta Egaña**

Urriaren 8an, 2 urte.

*Zorionak polita!! Etxeko guztion partez, egun zoragarria pasa ezazu. Muak!*


**Maia Navascués Martija**

Urriaren, 4an

11 urte.

*Zorionak Maia!! Musu handi bat etxeko guztien partez.*

**Ibai Eraso Gorrotxategi**

Irailaren 22an, 11 urte.

**Lander Eraso Gorrotxategi**

Urriaren 21ean, 13 urte.

*Zorionak, bikote! Askok gozatu zuen eguna, eta muxu erraldoi bana etxekoan partez... muuuak!!!*


**Nahia Goikoetxea Ilarregi**

Urriaren 8an, urte 1.

*ZORIONAK etxeko ttikiari!!!*

*Zein azkar pasatu den urtea.*

*Segi orain bezain alai izaten eta gure etxea alaitzen.*

*Muxuu erraldoi bat familia guztiaren partez.*

**June Etxeberria Etxarri**

Urriaren 17an, urte bat.

*June! Zorionak!! Urte ederra pasa dugu zure ondoan! Zu bezain ederra! Segi etxeko txoko guztiak alaitzen! Muxu handi bat!*


**Adei Goldarazena Barberena**

Irailaren 26an, 7 urte

**Nora Goldarazena Barberena**

Abuztuaren 26an, 5 urte

*Zorionak bikote!! Jarraitu orain arte bezain alaiak izaten. Muxu haundi bat attuna, amona eta familia guztiaren partez.*


**Urko Agirrezabala Valencia**

Urriaren 8an, 6 urte.

*Jarraitu zure*

*bizipozarekin denak*

*alaitzen. Maite zaitugu!*


**Arane Astiz Arangoa**

Urriaren 17an, 7 urte.

*Zorionak Arane!!! Zein*


*haundia zauden ja!!*

*Muxu goxo pilla etxekoan partez!!!*

**Jone Castrillo Cruz**

Urriaren 23an, 14 urte.

*Atallutik, zorionak Jone! Segi jator-jatorra.*


**Nerea Sestorain Anguera**

Irailaren 20an, 6 urte.

*Zorionak printzesa!!*

*Egun zoragarria*

*pasa dezazula zure*

*urtebetetze egunean!!*

*Askok maite zaitugu!!*

*Muxu potolo bat!!*


**Jone Juanmartiñena Cutillas**

Irailaren 29an, 8 urte.

*Zorionak, bihotza!! Egun*

*ona pasa dezazula eta*

*muxu potolo pila etxekoan*

*partez!! Askok maite zaitugu ttikitta!!*

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!  
Idatziezaguzu [mailope@labrit.net](mailto:mailope@labrit.net) e-postara hilaren 20a baino lehen.





## JULIO SOTO EZ DA PASA FINALAURREKORA

2022ko Bertsolari Txapelketa Nagusiko lehen fasea jokatu zuten urriaren 1ean Gotaine-Irabarneko herriko gelan, eta sei bertsolarik kantatu zuten, Julio Sotok tartean. Gorritikoak, baina, laugarren postua lortu zuen (691 puntu), eta, hala, ez zuen lortu Irunen azaroaren 5ean izanen den finalaurrekora pasatzea. Nerea Ibarzabalek irabazi zuen pasea (738 puntu), eta haren atzetik geratu ziren Iguaran (737,5), Labaka (649,5), Soto, Lazkoz (649,5) eta Iriart (605,5).



## TXIMISTA FEST, URRIAREN 15EAN ERRAZKINEN

Araitz, Betelu eta Errazkingo gazteek egun osoko egitaraua prestatu dute urriaren 15erako, Errazkinen: Tximista Fest izena jarri diote. Kantujira eginen dute goizean, bazkari autogestio-natua izanen da ondoren, eta arratsaldean jokoak ez dira faltako. Iluntzean, Gabezin musika taldeak girotuko du festa, eta gauean ere joko du. Heldu nahiz gazteentzako festa izanen da; beraz, animatu ongi pasatzera! Agendan dago egitarau osoa.




## HERRIAN ETA HERRIKOA EROSTEO

Lekunberriko Udalak herriko merkataritza kanpaina berria jarri du abian: *Nik hemen erosten dut*. Ekinbiderearen helburua da tokiko merkataritza sustatzea, eta herritarrak herriko bertako dendetan erostera animatzea, baita herritarrek beren erosketa ohiturak aldatzea ere. Zazpi oihalezko poltsa diseinatu dituzte, eta herritarrek denak eskuratu ahalko dituzte saltokietan erosiz gero, saltzaileek emango baitizkiete. Egin ezazu bilduma zuk ere!

## ► Maddi Soroa (Lekunberri)



*Errutinaren islada  
aldaketaren bolada  
ordutegirik gabeko  
ezer gutxi dago jada  
non geratu ote da denbora  
galdetzen ez duna noiz ta nora  
goiz izoztuei ikara  
urriak ordea festa giro  
ta egun bereziak berriro  
goza dezagun parada.*



*Doinua: Haritzaren memoria.* Hurrengoa: Eider Martirena (Uitzi)

## GOBERNANTZA EREDU BERRI BAT LEKUNBERRIRAKO

Legealdi mugitua izaten ari da 2019ko ekainean abitu genuena, eta seguruenik, bizi ditugun garai hauek ez ditugu nolanahi ahaztuko. Egungo egoerak behartu egiten gaitu lehentasunak eta baliabideak nora bideratu birpentsatzera, zer-nolako aukerak eta hutsuneak ditugun aztertzeraz, eta herri gisa konponbideak planteatzera. Zer-nolako aukera dute herriko gazteek eta ez hain gazteek etxebizitza duin bat lortzeko? Turismoari loturiko planteamendua beste herriekin elkarlanean egin nahi dugu edo haien ondareaz baino ez dugu nahi baliatu? Sortzen diren lanpostuak kalitatezkoak dira? Zer-nolako eskaintza kulturala daukagu gure herriarentzat? Egokia da?... Galdera horiek, eta beste asko, erantzun bat baino gehiago izan dezakete, baina betiko akatsetan ez erortzeko, atera egin behar genuke autokonplazentziatzeko egoeratik eta azterketa zorrotzak egin.

Eta horretarako, lehen pausoa gobernantza ereduari arreta jartzea da. Nola gobernatzen da Lekunberrin? Gure ustez, Udala herritar guztion da, ez alderdi bate-na. Eta erakunde hori kudeatzeko ardura duenak esaten duena egin beharko luke eta egiten duena esan. Sinplea dirudi, baina, tamalez, jende batek barneratua dauka Udala beraien jabetzakoa dela, eta horrek asko zailtzen du etorkizunean ditugun erronkei herri gisa erantzutea. Gure iritzian, instituzioen apropiazioa ez da neurri egokia herri batek aurrera egin dezan.

Politikan egiten denak baino garrantzi gehiago eman du saltzen den irudiak, edo hori diote behintzat komunikazio politikoan dabiltzan batzuek. Seguruenik, batzuek horrela ulertzen dute politika, baina horrek ez

ditu konpontzen arazo estrukturalak (enpleguaren kalitatea, energia krisia, etxebizitza eskubidea, mantenu arazoak, kalitatezko zerbitzu publikoak...). Horretarako, politika publikoak diseinatu behar dira, eta gure herriaren errealitateari erantzun. Herriarekin eta herriarentzat egin beharreko bidea da. Nekez egingo dugu aurrera 20.000€ bideratuz herriko mugikortasunari loturiko diagnostikoak egiteko parte hartzea aldarrikatuz, eta ondoren parte hartzeko aukerak baztertuz. Edo udalarena den eraikin batean, Guardia Zibilak erabiltzen duen horretan, 226.000€ gastatu eta egoera argitzeko proposamen bat mahai gainean jartzen dugunean, beste aldera begiratu eta kontra bozkatzuz. Horrelako jarrerak desconfiantza sortzen dute. Nola aldarrikatu kudeaketa efizientea egiten dela, eta gai konplikatuen aurrean ezer gertatuko ez balitz bezala jardun?

Gure ustez, gobernantza eredu berri bat behar dugu, behetik gora eraikitzen dena, herritarrak eta horien beharrak erdigunean izango dituen. Garaiak aldatzen ari dira, erronka berriak ate joka ditugu eta horiei errotik heldu ezean, jai izango dugu. EHBildu prest dago bide hori egiteko; ikasturte berria hasi dugu eta betiko formula zaharrek ez dute balio galdera berriei erantzuteko. Horregatik, eskua luzatu nahi diegu gure herriaren etorkizunaren inguruan arduratuta dauden guztiei, posible delako -eta beharrezkoa ere bai- norabide aldatzea. Bulkada berriak behar ditugu garai berrietarako.

Lekunberrin, 2022ko irailaren 20an  
**EH Bildu Lekunberri**

**AURRERA  
TABERNA  
ARALAR, 15  
948 60 47 24**

**TAXI  
SOROA  
609 168 217  
Bederatzi plaza**

**Antsoenea**  
BASERRIKO GAZTA  
948 513 468  
www.antsonea.com  
Uztegi (Araltz)

**OTXOTORENA  
okindegia  
ARRIBE  
ADIII TLF BERRIA:  
948 51 30 32**

**Lagunasesoria S.L.**  
Fiskala  
Laborala  
Kontabilitatea  
Seguruak...  
k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232  
[lagunasesoria@terra.es](mailto:lagunasesoria@terra.es)

**Construcciones  
Gañarbe**  
ERREABILITAZIOAK  
IGELTSERITZA  
FATXADAK  
TEILATUAK  
Oztegin kalea 2, Lekunberri 616 457 540  
[construccionesganarbe@gmail.com](mailto:construccionesganarbe@gmail.com) 636 827 846



## URRIAK 8: ETXERA BIDEA GERTU JAIALDIA

Urriaren 8an Sarek aurtengo urtean egingo duen mobilizazio eta jaialdi handiena antolatatu du Donostian. "Etxera bidea gertu!" lelopean egun osoko egitaraua antolatatu du adin tarte guztientzat aproposa.

Egun berezi honen bitartez bi mezu nagusi helarazi nahi ditu; batetik, leloak dioen moduan, euskal presoak etxetik gero eta gertuago daudela eta herritarrok ere etxeratze prozesu hori gauza dadin gertu = prest gaudela. Gertutasun hori aurrerapauso garrantzitsua dela adierazi nahi dugu eta eskerrak eman bide horretan aktibo izan diren pertsona guztiei, guztion artean aurrera urrats hori ospatuz.

Bestetik, lortutakoari garrantzia kendu gabe, oraindik ere salbuespena guztiz amaitzeko bidea egiteke dugula gogorarazi nahi dugu eta herritarrok bide hori egiten jarraituko dugula erakutsi. Horretarako, Izan Bidea dinamikaren baitan gure buruei 3.127.326km egiteko ezarritako erronkari amaiera emango diogu egun horretan ere, azken kilometroak Donostiako kaleetan eginaz eta, ondoren, Ilunbera eramango gaituen manifestazio koloretsu bati ekingo diogu, azkenik jaialdiari paso emateko.

Sarek aldarrikapena eta festa batu nahi ditu, beraz, urriaren 8an Donostian, urrunketaren aurka urte luzeetan elkartzen joan garen herritar oro Donostian batuz. Hori hala, dei egiten die Araitz-Beteluko herritarrei ere urriaren 8an goizetik Donostiara joateko, azken kilometroa egin, manifestazioan parte hartu eta Ilunbera jaialdiaz gozatzeko.

### Eguneko egitaraua:

11.00etan azken kilometroa Bulebarretik

12:00etan Manifestazio Koloretsua Pio XII.etik. Ondoren, ekitaldia Ilunben eta jaialdiaren hasiera: txosnen gunea, bazkaltzeko zerbitzua, haurrentzako gunea eta kontzertu eskaintza anitza izango ditugu Ilunben arratsalde osoan zehar:



URRIAK 8 · DONOSTIA

11:00 · Bulebarra · Azken km-ak  
12:00 · Pio XII · Manifestazioa



- Taloak, bokatak, paella, kale animazioa...
- Haurrentzako eskaintza Porrotx eta lagunaren ikuskizunarekin, oreka jolasak, tirolina, aurpegi margoketa... eta gehiago izango dituen gunea iraunkor batekin.
- Ilunbe barnealdean kontzertuen eskaintza 15:30etik aurrera hasiko da, Maddalen Lujanbio, Amets Arzallus eta Eñaut Elorrieta izango direlarik jaialdiari hasiera emango diotenak.
- Beste hainbat artista eta talderen ikuskizunaz ere gozatu ahal izango dugu: Belako, Rotten XIII, Esne Beltza, Su Ta Gar, Zea Mays, Liher, Sua, Doctor Deseo, Josu eta Gari (Hertzainak), Dupla, Andoni Oilokiegi, Trikidantz...

Jaialdirako sarrerak oraindik ere eskuragarri dituzue [sare.eus](http://sare.eus) web orrialdean ([sare.eus/urriak-8](http://sare.eus/urriak-8)) eta, bertaratzeko eta itzultzeko, autobusak izango dira.

**SARE**

**IORTIA** CLÍNICA DENTAL · HORTZ · XERPIKA

Amets Soroa Guelbenzu · Odontologoa Kol.Zk. 785  
Vanessa de Abreu Perdomo · Odontologoa Kol.Zk. 740

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005  
Altsasu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·  
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios  
**IRACHE**  
Betidanik

ALTSASU · IRURTZUN  
LEKUNBERRI · BETELU · LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,  
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK  
\*\*\*\*\*  
24 ORDUKO TELEFONOA  
· 948 19 70 70 ·  
[www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)



**errigora**

[errigora.eus](http://errigora.eus)

**urriak 22 - azaroak 10**

**Nafar hegoaldeko uzta  
euskarari puzka**

# Bat egiteko garaia da

**aek**



**ikastolenelkartea**



**Sortzen**



---

*Eskatu saskiak eta lagundu horien balioaren %25arekin Nafarroa hegoalde eta erdi-aldeko euskalgintzari.*

---



Hurrengoa:

Ane Zabala Estanga  
(Arriba)



## Olatz Altuna Gaztelumendi (Azkarate)


### Zergatik aukeratu dut?

Etxetik bertatik bertara edukita, egunerokoan egiten dudan paseotxo bat delako. Ibilbide guztian zehar inguruko lasaitasunaz eta naturaz disfrutatzen dudalako, eta, batez ere, pauso bakoitzean Mallozar, Araitz ibarr eta Malloen bista aurrez aurre edukitzean zorioneko sentitzen naizelako.

# maite ditut maite gure bazterrak

## Urraitz mendiko igoera

**Ibilbidea:** Zirkularra  
**Distancia:** 6km  
**Desnibela:** +350m  
**Zailtasuna:** Erraza



### Bidea:

- 1 Azkarateko plazatik hasita, hilerri aldeko goranzko bidea hartuko dugu. Zementuzko bidea bukatzean, bi aukera ditugu: eskuinera, harrizko pista bidea, eta, ezkerrera, guk aukeratuko dugun GR marka zuri-gorriko bidea, Mallozarr (Balerdi) parez pare dugula mendiko bidea. Bi bideek leku berera eramaten dute.
- 2 Aldapa gora eginda, ganaduak edateko aska bat, oroitarri bat, pagadi baso txiki bat... topatuko ditugu, eta Urdileko Lepoa izeneko kaxko batera iritsiko gara. Bertan landa eremu zabal bat ikusiko dugu.
- 3 Beheraldera, harkaitz batzuetara eramaten duten hesi baten aurrean aurkituko gara. Hesia igaro, eta nahiz eta Urraitzera igotzeko bidea markatuta ez egon, oinezkoen bidea oso nabarmenduta dago.
- 4 Harri tartetik gora egin, eta gailurrera iristean metalezko perretxiko bat, euskararen ikur den Argitxo ipotxa eta postontzia aurkituko ditugu.
- 5 Berrito lehengo hesiraino atzerazko bidea egingo dugu, eta, orainoan, marka txuri, gorri eta horiei jarraituz, pistan behera joango gara. 40 metrora mendi pistaz ezkerrera jo beharko dugu. Eskuinera eginez gero, herriko plazara iritsiko ginatke zuzenean. Ezkerrera eginda, galbiderik gabe harrizko harkaitzen ingurutik igaro, eta aldapa behera egingo dugu.
- 6 Bidegurutze honetan, eskuinera jo behar da herriko plazara azaltzeko. Ezkerra eginez gero, Bedaio (GI) aldera, Zarate basora iritsiko ginatke.

# “Athleticek eskaintza egin zidanean ez nuen zalantzarik izan”

*Athletic Klubak Maiane Arretxea Etxeberria lekunberriarra fitxatu du eta dagoeneko Lezaman hasi du denboraldia. Hamahiru urte baino ez ditu, baina bost urterekin hasi zen futboleant. Hauxe denboraldia hasi aurretik egin genion elkarrizketa.*

## Hamahiru urte dituzu baina ume-umetatik ibili zara futboleant.

**Maiane:** Osasuna Fundazioan hasi nintzen, Leitzan. Bost urte nituen eta gainerako guztiak mutikoak ziren. Gustura ibili nintzen hilabete batzuek, baina gainerakoak bertakoak ziren, lagunak, eta niri gutxiagotan pasatzen zidaten baloia. [Kar, kar...] Sei urte bete nituenean, Beti Kozkorrera aldatu nintzen. Ordura arte ezin baitzen. Zortzi edo bederatzuri urterekin txapelketetan parte hartzen hasi nintzen. Infantil-Kadeteen kategorian aritzen ginen, hamazazpi urteko neskekin askotan.

**Aitziber Etxeberria (ama):** Ondoren Andoainen emakumezko futbol jokalariai hautatzeko torneo bat jokatu zen eta Lekunberrietik hiru neska joan ziren Berastegiko hainbatekin batera. Ordurako

Oberenan tenisean ere aritzen zen. Beti Kozkorren Kadeteen mailan baino ezin zuen jokatu, ez zen bere kategoriako talderik atera eta Kadeteen mailan ongi jokatzen eta gozatzen bazuen ere aldea nabaritzen genuen.

**Maiane:** Azkenean Oberenara aldatu nintzen. Egunero joaten hasi nintzen. Eskolatik ateratzen nintzenean, hara joan eta bi orduz tenisean entrenatu eta gero, futboleko entrenamendua izaten nuen eta iluntzean etxera bueltatzen nintzen.

**Aitziber:** Eta asteburuetan partidak. Adibidez Gasteizen partida jokatu eta ondoren beste tokiren batera futbol partida jokatzerantz. Tenisa pandemiaren aurretik utzi zuen. Nafarroako lau jokalaria onenen artean zegoen.

## Eta joan den urtera arte Oberenan ibili zinen?

**Maiane:** Bai. Oberenan nire kategorian jokatzen hasi nintzen, baina pandemia iritsi zenean talderik ez zen atera eta beste urtebete egin nuen, baina iaz Mulierrera aldatu nintzen. Eta han ibili naiz orain arte.

## Athleticek aukera luzatu dizun arte...

**Maiane:** Bai. Beste bi klubentz eskaintza ere jaso nuen, baina argi nuen Athleticentz jokatu nahi nuela.

## Eta nola aldatuko da hemendik aurrera zure egunerokoa?

**Maiane:** Asteaz zehar Lezaman egonen naiz. Athleticentz Euskal Herriko jokalariai baino ez dituz fitxatzen, beraz Euskal Herriko txoko ezberdinetako jokalariekin ibiliko naiz. Hamasei urtetik beherakoa izanda, erresidentzia batean beharrentz baserri batean biziko naiz beste bi neskekin batera.





*“Beste bi klub en eskaintza ere jaso nuen, baina argi nuen Athleticen jokatu nahi nuela”*

Maiane Arretxea

### **Ikasketekin ere bertan jarraituko duzu orduan?**

**Maiane:** Bai, aurt en DBHko hirugarren mailan hasiko naiz eta Lezamatik gertu dagoen Ikastola batean ikasiko dut. Goizez Ikastolara joanen naiz eta arratsaldean Lezamara. Astean hirutan izanen ditut entrenamenduak. Eta egun horietan ere bertan ikasteko gutxienez ordubete utziko didate. Gero entrenamendua eta iluntzerako etxera.

### **Eta asteburuetan?**

**Maiane:** Asteburuetan partida izanen dut. Baina partidaren ondotik Lekunberrira etorriko naiz. Asteburu bueltatuko naiz.

### **Aldaketarekin urduri al zaude?**

**Maiane:** Ez, aldaketa handia izanen da, baina lasai nago. Aurt en Kadeteekin jokatu dut, baina iaz Bizkaiko kadeteen kontra aritu nintzen, beraz, lasai nago. Dena den hango entrenamenduetara eta bizitzara egokitu egin beharko naiz.

### **Pausoa ematea kostatu zitzaizun?**

**Maiane:** Ez.

**Aitziber:** Anaiarekin harreman estua du eta bera edo gu faltan botako gintuela edo gaizki pasako zuela esan izan baligu ez genuke pausoa ematera animatuko. Guraso bezala pena eta kezka sortzen digu, oraindik oso gaztetxoa delako, baina bizitzan halako aukerak ez dira errepikatzen eta bere ilusioa da. Guraso bezala hori ezin diogu ukatu.

**Maiane:** Aldaketa handiena etxetik kanpo egotea izanen da.

**Aitziber:** Guk orain atseden hartzeko aukera izanen dugu. Askotan ez da aurrera egiten duten kirolarien gurasoen edo inguruko en ahalegina ikusten. Maianek ume-umetatik izan du kirola egiteko



beharra, berak eskatzen zigun zerbait zen.

### **Zergatik futbola? Etxean futbolzaleak zarete?**

**Maiane:** Ez, bereziki. Aitona Javier bai, bera oso futbolzalea zen, Osasunakoa. Nik Athleticekin teknifikazioa egiten nuenean ere

*“Bizitzan halako aukerak ez dira errepikatzen eta bere ilusioa da”*

Aitziber Etxeberria

esan ohi zidan Athleticen zuen onena taldeak zituen jokalaria nafarrak zirela! Baina bestela etxean ez dira oso sutuak izan. Aitari gehiago gustatzen zaio txirrindularitza edo 1 Formula. Orain nire kontutik, aitarekin bizikletan ere ibiltzen naiz. Eta korrika ere egiten dut. Beti izan dut kirolerako erraztasuna.

### **Eta lagunek zer esaten dizute?**

**Maiane:** Neskek ez didate ezer berezirik esaten. Zoriondu egin

*“Ez dut neska izan eta futboleko aritzeagatik kritikarik edo halakorik jasan orain arte”*

Maiane Arretxea

naute, hori bai! Mutilek flipatu egiten dutela uste dut. Kirola dela eta harreman ona dut mutilekin.

**Nola moldatzen zara ikasketak eta kirola uztartzeko?**

**Maiane:** Orain arte ez dut zailtasunik izan. Orain arte gutxi ikastearekin nota onak atera izan ditut. Entrenamenduetako joan-etorrietan ikasi behar izan dut askotan. Hemendik aurrera ikusiko dugu!

**Lesiorik ez duzu izan?**

**Maiane:** Lehenengo urtean lesio txiki bat izan nuen orkatilan. Amak takodun oinetakoekin eraman ninduen Leitzara lehen entrenamendu egunean. Belarretan ibiliko ginela uste zuen, baina kiroldegian aritu ginen. [Kar, kar...]

**Esperientzia txarrik?**

**Maiane:** Ez. Ez dut neska izan eta futboleko aritzeagatik kritikarik

edo halakorik jasan orain arte. Eta futbolari esker lagun asko egin ditut, Iruñean batez ere. Zentzu horretan Mulier uzteak pena eman dit.

**Publizitatea ere egin duzu inoiz...**

**Maiane:** Bai. Lacturale produktuen publizitateko irudia izan nintzen nire anaia Andonirekin batera. Hasieran ez nuen nahi, baina azkenean animatu egin nintzen eta oso esperientzia polita izan zen. Ongi pasa nuen argazkiak ateratzen eta bideoak grabatzen.

**Bazoaz Lezamara, baina zenbat denboralditarako zoazen badakizu?**

**Maiane:** Ez. Ikusiko da, ea ongi egokitzen naizen, emaitzak, gustura nagoen... Momentuz aukera aprobetxatu nahi dut!

**Zorte on, Maiane!**





Aurretiazko  
Borondateen  
Agiria (ABA)

**Nire bizitzaren amaierari  
buruzko erabaki garrantzitsuetarako**

**nik aukeratzea  
erabakitzen  
dudalako**





### ▶ PAUMA ELKARTEAK KUDEATUKO DU AURRERANTZEAN ASTIZKO ATERPETXEA

Kontzejuak egindako deialdiari erantzunez, Pauma elkarteak arduratuko da aurrerantzean Astizko aterpetxearen kudeaketaz. Azken 28 urteetan Etxarriko Arotz Enea barnetegiaz arduratu den elkarteak Pauma, esperientzia handikoa beraz, eta ingurumen hezkuntza programa bat ondu du eskolei eskaintzeko; Mendukiloko kobazuloak ere sartu dituzte horretan. 5 eta 14 urte bitarteko ikasleei emanen die aterpe. Taberna zerbitzua ere izanen da: aste barruan goizez egonen da irekita, eta asteburuan goizez nahiz arratsaldez.



### ▶ UDAKO FESTETAN IZANDAKO ERASO MATXISTAK SALATU DITUZTE ARAITZ-BETELUN

Berrogei lagunetik gora elkartu ziren Arriben udako festetan izandako eraso matxistak salatuzko elkarretaratzean. Araitz eta Beteluko udalek eta bertako talde feministek egin zuten deialdia, hau da, Erasoen Aurkako Mahaiak, eta, besteak beste, salatu zuten azken hilabeteotan etxera jarraitu dituztela, mehatxatu egin dituztela eta baimenik gabe ateratako argazkiak zabaldu dituztela. Eraso egin dieten emakumeei babeserakutsi zieten, eta nabarmendu zuten gizartearen ardura dela indarkeria matxistari aurre egitea. Horretarako, ezinbestekotzat jo zuten neurriak hartzea.

### KASKAMOTZ EGITASMOA SARITU DU CRIS FUNDAZIOAK

Cris Contra el Cáncer fundazioak sari bat eman die Luari eta bere guraso Jaione eta Rauli, minbiziaren ikerketarako dirua biltzeko egin duten lan solidarioagatik. Familiak eskerrak eman nahi izan dizkie diru-bilketan eta Kaskamotz Egunean lagundu eta parte hartu duten guztiei: "Sari hau guk jaso dugu, baina denona da!".







### EH BILDUK EGOITZA BERRIA DU LEKUNBERRIN, ESQUALDE OSOARENTZAT

EH Bilduk eskualde osoari irekita egonen den egoitza inauguratu du Lekunberrin, herriko plazan. Inaugurazioan izan ziren Bel Pozueta, Madrilgo Kongresuko diputatua, eta Arkaitz Goikoetxea, Lekunberriko Udaleko zinegotzia. Pozuetak adierazi zuen "jendearengandik gertu egoteko, eskualdea elkartzeko" ari zela zabaltzen EH Bildu egoitza berriak Nafarroan, hala, "hausnarketak egiteko". Arkaitz Goikoetxeak, berriz, EH Bilduk Lekunberrin eta eskualdean egindako lana nabarmendu zuen: "Ezinbesteko motorra izan gara eta jarraitzen dugu izaten turismoari, tokiko garapenari eta eskualdeko aktibazio ekonomikoari bide emateko".



### URRIAREN 30EAN EGINEN DUTE ARAIZKO ZAPOREEN AZOKA, SAGARRA ARDATZ

Duela sei urte hasitako bideari jarraituz, urriaren 30ean Araitzen ekoiztutako produktuak baserri eta etxeetatik plazara aterako dituzte: Araizko Zaporeen azoka eginen dute Arribeko plazan. Aurten, sagarraren garrantzia azpimarratu nahi izan dute; horretarako, sagar-postre lehiaketa antolatu dute lehen aldiz, eta ibarrean ekoiztutako zazpi sagardogileren sagardoa dastatzeko aukera izanen da. Munduzabal proiektua laguntzeko, talo solidarioak ere egonen dira. Horrez gain, informazio turistikoa ere bai, eta hurrek zaldi gainean ibiltzeko aukera ere izanen dute.

### "ETA ESKOLATIK KANPO, ZER?"

Aisialdian ere euskarak duen presentziari garrantzia emateko, Nafarroako hainbat toki entitatetako euskara zerbitzuek kanpaina berri bat abiarazi dute. Familiei gogorarazi nahi diete eskolatik kanpo ere ezinbestekoa dela haurrak euskaraz aritzea. Bi euskarri sortu dituzte: bideo bat eta eskuorri bat. Eskuorrian 10 aholku praktiko ematen dituzte. Kanpaina berri hau [era.eus](http://era.eus) webgunean biltzen den egitasmo zabalago baten parte da.



# Lehorteak hustu ditu Aralarko larreak

*Azken urteotako udarik lehorrenak egarriz eta gosez utzi du Aralarkoazienda. Aska gehienak hustu egin dira, eta nekez atera du belar punta gozorik. Ondorioz, ganaduzaleek ohi baino lehenago jaitsi behar izan dituzte behorrak eta behiak menditik, eta ardiak ere ahultzen hasiak dira. Negu gogorra heldu zaie, baina udaberrian jana indartsu aterako den itxaropena dute.*

16

Larreak soilduta, aska gehienak hustuta, etaazienda abaro, asken ingurua zain, egarriz eta gosez. Horixen Aralarrera igo eta ganaduzaleek eta mendizaleek topatzen zuten panorama. Ezohikoa eta gogorra, gainera, mendilerroan jaiotzen den bazkarekin elikatzen den aziendarentzat. Udaberrian ohi baino euri gutxiago

egin zuen, eta larreetan ez zen jaiotesperotako belar adina. Egoera hori are muturrekoagoa bihurtu da udasasoian, aspaldiko lehorterik handiena izan baita aurtengoa, eta soildutako lurtean nekez atera da belar punta gozorik. Aurretik jaiotakoa akabo, eta geratutako apurrarekin irauaraziz ailegatu behar udazke-

nera. Ondorioz, ohi bainoazienda gutxiago geratzen da orain Aralarren: primaderan igotako ardi gehientsuenak bai, baina beste urteetan baino behor dezente gutxiago, eta behien arrastorik ez.

Jabier Otamendi Aralarko gardak ez du halako sasoi idorrik gogoratzen. Hogei urte inguru dira mendilerroan lanean hasi zela, orain dela hemeretzi lortu baitzuen lanpostu finkoa guarda gisa, eta esan du hau izan dela inoiz ikusi duen udarik gogorrena. Hasierako urte hartan, 2003an, uda hasiera ere oso lehorra izan zela azaldu du, aurtengoaren antzekoa, baina xamurragoa, ez baitzuen hainbeste iraun euririk egin gabe. Bazen, baina, alde nabarmen bat: garai hartan ez zeuden gaur egun dauden askak, eta Unako putzua irekita zegoen, baina urik gabe geratzeraino lehortu zen hura ere: "Orain ez dago guztiz hustuta, baina bai lehortzeko zorian. Ordu hartan, gainera, azienda barruraino sartzen zen, han bainatzen zen, baita hazka egin ere. Horregatik lehortzen zen gaur egun baino errazago eta lehenago". Aralar Elkarteak 2005ean erabaki zuen Unako putzu behin betiko ixtea, eta horren truke, Otamendik azaldu duenez, proposatu zieten bi aska jartzea. Hasieran ez zen ganaduzale guztien gustuko erabaki bat izan, baina esan du denborarekin ikusi dela horri esker asko hobetu zela aziendak ura edateko sistema Aralarren, eta Unako putzuak ere beste



Jabier Otamendi. Arg: Labrit.



itxura bat duela orain lehengoarekin konparatuta: "Errekuperatu egin da, lehen erosioa ere oso handia baitzen eta dena lohituta egoten zen; orain, berriz, belarra jaio da, zuhaitzen bat edo beste ere bai..."

Hamar aska inguru daude gaur egun Nafarroa aldeko Aralarren: Ezantzan bat, Frantzeserrekan beste bat, Inguitzin, Ubelan, Txingolan, Zeontzan, Errenagan, Desaon, Pagomarin eta Apain aldean beste bana. Den-denak ez dira geratu urik gabe udan, baina bai gehientsuenak: Frantzeserrekakoa, Zeontzakoa eta Desaongoa izan dira ura uda osoan ekarri dutenak, gehiago edo gutxiago, baina gainerako gehienak guztiz hustu dira. Horren aurrean, azienda askok Unako putzu inguruan dauden erreketan edan dute ura, horiek ere ur emari eskasa zuten arren, baita lohituta eta ur geldia ere.

Otamendik esan du 2003. urteko lehorte hartan ere errekek "salbatu" zituztela aziendak, ez baitzegoen urik beste inon. Azaldu du iturri bakoitzaren aberastasunaren arabera geratzen dela aska bakoitza urik gabe: "Bakoitzak bere iturria dauka. Beloki azpian eta Ezantzan dauden asken kasuan, putzu batetik datorkie ura, eta uztail bukaerarako hustu egin zen. 2006. urte inguruan Nafarroako Gobernuak emandako diru laguntza baten bidez egin genuen: suteak gertatuz gero, helikopteroak handik hartu dezake ura. Nahiko sakona da, sei metro inguru, eta neguan egiten duen euriarekin eta elurrarekin betetzen da. Hori aprobetxatuta, bi aska egiteko eskatu genuen, eta, hala, suterik ez zegoen bitartean, ur hori aziendak edateko erabil genezakeen. Orain arte ur hori ez da erabili sute-



Behorrak errekan ura edaten. Arg: Labrit.

rik itzaltzeko, asketarako bakarrik". Dena den, guarda konturatu da urtetik urtera orokorrean ur gutxiago iristen dela asketara: "Desaokoa eta Frantzeserrekakoa dira aberatsenak. Zeontzako iturria erabili genuenean aska egiteko, mendiko hobentsuenerarikoa zen, baina ohartu naiz azken urte hauetan jaisten joan dela. Beloki puntan dagoen iturritik ere uste dut geroz eta ur gutxiago ateratzen dela, eta hori berez ia lehortzen ez den iturri bat da".

#### **Azienda behera, eta neguari so**

Lehorteak egarri handiagoa ematen die abereei, eta, euri faltak eraginda, ez belar eta ez ur. Otamendik azaldu du uztail hasieran dagoeneko mendia asko horitu zela, baina oraindik aziendak ongi eusten ziola, eta itxura ona zuela, "gizenak eta distiratsu" baitzeuden. Halere, egoera hori ez zen ohikoa: "Garai hori irailean izaten da normalean. Gero lehorretik jarraitu zuenez, azienda bajatzen hasi zen, batez ere umedunak, eta behorrak eta behiak batik bat". Halere, esan du arrazatik arrazara aldea badagoela, eta aberea zenbat eta "mendikoagoa" izan, orduan eta hobe eusten diola, tokira eta baldintzetara hobeki egokitzen direlako. "Ardi latxak hobe eusten dio, baxuagoak direnak, eta

hemengo berezko behorrak ere bai, handiek baino hobe, txikiagoa delako eta jana gutxiago behar duelako; oteari ere gehiago heltzen dio besteek baino".

Normalean azaroan jaisten dituzte ardiak artzainek, eta urri aldera behorrak eta behiak, eta behin jaitzita hasten dira ganaduzaleak belar idorra eta pentsua ematen. Baina aurten lehenago hasi dira bordetan eta estalpeetan gordetakoa ateratzen, behorrak bultzatuta: "Negurako gordeta zeukaten jana ematen hasi beharko dute. Hori bukatzean, erosi egin beharko dute, bestela janik gabe geratuko dira. Aurten, gainera, askoz gutxiago bildu dute udan, normalean baino %40 gutxiago".

Negua ahalik eta hoberen pasa, eta udaberriaren zain geratzea baino ez zaie geratzen ganaduzaleei, aurten baino bazka gehiago eta hobe ekarriko duen itxaropenarekin. Otamendik uste du negua nahiko epela eta hezea izaten bada, izotz gutxiarekin, belar nahikoa aterako duela. Ura ongi etorria izango dela nabarmendu du: "Zenbat eta elur eta euri gehiago egin, orduan eta ur gehiago biltzen da lurrazpian. Ura ezinbestekoa da iturriak, putzuak eta askak betetzeko".

## “Ardiak gaizki dabilta azkenaldian; aurten lehenago jaitsi beharko ditugu”

*Ardiekin batera maiatzean igo, eta azarora arte Txameni puntaren magalean duen txabolan egoten da Gaintzako Pako Garmendia artzaina, uda osoan etxera itzuli gabe. Inoiz ez du horrelako uda lehorrik ikusi.*

### Zenbat urte daramatzazu Aralarren artzain?

50 urte baino gehiago. 69 urte ditut orain, eta soldaduskatik etorri nintenez geroztik hemen ibili naiz uda guztietan, eta hala segitzen dut. Lehen ere maiatzean igotzen ginen mendira, baina orain baino lehenago joaten ginen hemendik; orain azarero inguruan, eta lehen urrian edo. Malloetara joaten ginen ardiekin, eta handik etxera ibiltzen nintzen, Gaintzara: goizean goiz jaiki, oinez ordubeteko bidea egin honeraino, ordu batzuk pasa ardien ondoan, eta bazkaltzeko ordurako etxera jaisten nintzen. Arratsaldean ardiak bakarrik egoten ziren, ez bainintzen igotzen.

### Etxean beti izan dituzue ardiak?

Bai. Aitona ere ezagutu nuen artzain lanetan, Martin Miguel izena zuen. Aitonarekin lo egiten nuen txabolan. Hura famatua zen mendian! San Miguel aingeruarekin ibiltzen zen, Igaratzara Gipuzkoako mugatik ekartzen zutenean, Azpirozko apez batekin. Gure aita, berriz, ez zen hainbeste ibiltzen arditan, hura gehiago etxeko lanetan, ez zuen arditarako horrenbesteko afiziorik. Ni aitonarekin hasi nintzen eta ondoren ere segitu nuenez, aita ez zen ia ibiltzen. Nik beti izan dut arditarako afizioa, txikitatik.

### Beti ibili zara hemen?

Urte batean Andimendin izan nintzen, hemengo txabola egin baino lehen. Garai hartan ardi asko zegoen Aralarren, lekua txikiegia zen hainbeste ardirentzat; orain dauden ardiak halako bi egoten zen hemen ordu hartan. Orain, berriz, ardi gutxi dago. Andimendin Sahatsa aldean ibili nintzen, baina han bai egon behar izaten nuela egun osoan ardien ondoan, beharko! Ardien aurreneko urtea zen han, eta ez zen erraza. Agudo etorri nintzen handik, ardiak ere egarrituta egoten ziren...

Aralarrera etorri, eta Beteluko Kankarrok ardiak kendu zituen, eta hari hartu genizkion guk. Beteluko Euxebioren ardiak ere larre hartan ibiltzen ziren; horiek kendu, eta larre hartan geratzen hasi nintzen.

### Zein beste artzain egoten ziren Aralarren?

Artzain asko izaten ziren, hamabost baino gehiago. Azkarateko Martxo zen ardi gehien zituena, eta haren anaia Angelek ere ardi sail bat izaten

zuen. Gaintzatik ere etortzen ziren, Otxolizarretik adibidez hiru anaia, artalde banarekin. Otxomingo Juanito ere bai, Martiko... Betelutik Kankarro, Ualde, Euxebio, Ipiarrekoak... Intzakoak Kandido, Ezkurdi. Eta Errazkingoak ere bai, Bengoetxeakoa, Ayutuarrak... Artzain bakoitzak 400-500 bat ardi izaten zituen. Guk ere 450-500 izaten genituen; orain gehiago ditugu. Orain, berriz, oso artzain gutxi daude.

### Beraz, mendira etorri eta kontutan arituko zineten.

Orduan lasaiago bizitzen zen jendea. Batekin egon, bestearekin... Orain denak presaka ibiltzen dira. Gainera, ez duzu inoiz ikusten mendian, ez dago inor hizketan aritzeko, mendizale batzuk baino ez. Lehen, hiru-lau artzain elkartzen ginen, eta tarte ederra pasatzen genuen, lasai. Kontu horiek bukatu dira.

### Noiz hasi zinen hemen lo egiten?

Oraingo txabola hau 2003. urtean egin genuen, orain dela hemeretzi urte. Aurretik bagenuen beste txabola bat, hau baino beheraxeago zegoena. Beste txabola hartan ere egiten nuen lo honera etortzerako, baina hemen 19-20 urte egiten ditut dagoeneko, uda osoa hemen pasata, behera ia ezertarako jaitsi gabe.



Pako Garmendia. Arg: Labrit.



Lehen artzainok asko ibiltzen ginen batetik bestera, baten txabolan bazkaldu, beste batenean kontu batzuk esan... Oso ongi moldatzen ginen. Oraingo artzainak mendira etorri, ardiak ikusi, eta behera doaz, lanera. Egon bai egoten gara zer edo zer, baina lehen bezalakorik ez dago.

**Zergatik uste duzu aldatu dela artzainen bizimodua? Gogorra da erabat hemen egotea?**

Niri ez zait gogorra egiten. Nik egunean ordu batzuk ardien ondoan pasa, haien begira, eta erraz joaten zait eguna. Eguraldi ona egiten duenean batez ere; txarra egiten duenean gogorra da, lainoa eta euria sartzean... Baina lan gogorra da, eta gazteek ez dute nahi. Artzain oso umetatik hasten direnek berezkoa dute sen hori, baina artzain berriak ez du holakorik nahi. Oso gogorra baita gau eta egun hemen egotea.

**Aurten, halere, eguraldi zelebrean egin du, ezta?**

Uda oso lehorra izan da. Ez dut horrelako uda lehorrik gogoratzen. Ardi gutxi dago gaur egun, baina azienda larria asko ugaritu da, behiak eta behorrak. Eta horiek belar asko behar dute, janari asko. Lehen ere izaten ziren behorrak, baina askoz gutxiago. Orain sail handiak izaten dira. Sakana aldetik ia ez zuten behorrik ekartzen lehen, Araitz eta Betelukoak bakarrik ibiltzen ziren. Betelun Baldartarrek-eta izaten zituzten behorrak, Lateikoek ere bai... Behe herrikoek gehienbat; goi herritik ez zen ia behorrik etortzen. Azienda larri izugarri ugaritu da orain, eta urtetik urtera geroz eta gehiago ekartzen dute. Behorrak gainera oso azkarrak dira, eta lekuri hoberenean ibiltzen dira, jan fina bilatzeko.



Garmendia txabola inguruan. Arg: Labrit.

**2003. urtea ere nahiko gogorra izan omen zen, lehorra.**

Bai, lehenbizi hala izan zen, baina gero ez. Jana ateraz gero ongi dago azienda, baina aurten oso lehorra tokatu da, eta ez du janik atera. 2003an goizago egin zuen euria, eta jana atera zuen behintzat gero.

**Nola eragin die aurtengo eguraldi lehorrak ardiei? Zer sumatu diezu?**

Janaz aparte, askak ere hutsik egon dira, eta ardiek edaten zuten ura zikina zegoen. Orain da garairik txarrena ardiarentzat. Mendian ere jana gutxiago dago, abuztuan baino; orduan behintzat berdura pixka bat atera zen, baina azkenaldian ardiak gaizki dabilta. Bajatzen ari dira, eta sarri umeak izaten hasiko dira, azaroan, eta umea handitu heinean moteldu egiten dira. Ardi batzuk behintzat lehenago jaitsi beharko ditugu aurten.

**Behera jaistean, azaroan, neguko lanak hasiko dira. Zer garai nahia go duzu?**

Neguan txarrena arkumeak jaiotzen

diren garaia izaten da, gogorrena. Ardiei erreparatu egin behar zaie, haien gainean egon behar duzu beti, eta gero arkumeak jaiotzean eta jezten hastean eguneroko martxa eramaten duzu, baina lo faltarik handiena arkumeak jaiotzen diren garaian izaten da.

**Lehen ere jezten zenituzten ardiak? Baita mendian ere?**

Lehen ere bai, eta gazta ere egiten genuen, saltzeko. Otordu bakoitzean hiru bat gazta egiten genuen. Ordu hartan jezteko ardi guztiak ekartzen genituen mendira.

**Orain mendia horren lehorra ikusita, ze espero duzu hurrengo urterako?**

Nik uste giro epela eginez gero berrituko dela, baina hotza eman ez gero... ez dakit zer gertatuko den. Halere, ez zait iruditzen hau betiko izango denik, horrelako eguraldi lehorrak egingo dituenik beti aurrerantzean. Aldatuko da.

**Iñigo Garaioa MARGOLARIA**  
696 658 288  
LEKUNBERRI

**German Lasarte HARATEGIA**  
Aralar kalea 9  
Lekunberri  
948504157

**MALLOAK**  
ARTZAI GAZTAK  
Granja Martxoena, GAINZA, Nafarroa  
Iabi. 649 472 057 + Iocuna. 660 511 097  
Malloak.com | info@malloak.com

**GALBURU**  
okindegia - panaderia  
Egur-labean egina!  
Alde Zaharra 50  
LEKUNBERRI  
948 50 40 42

# “Aldarrikatu nahi izan dut denon artean eraso guztiak geldiarazi ditzakegula”

*Irati Moreno aldaztarrak bere lanetako bat Zarateko lepoan egin berri duten Azken Muga jaialdian erakusteko aukera izan du: ‘Bake naturala’ izena jarri dio eskulturari. Uste du etxetik datorkiola arterako grina, eta 23 urterekin argi dauka bere zaletasunik handienak uztartu nahiko lituzkeela etorkizunean ere: literatura, artea eta hezkuntza.*

dituzten erasoak, eta horien aurka ere egin nahi nuen; beti egon dira, eta oraindik ere eraso pila bat daude. Behean, harri txiki batzuk jarri ditut, gizartea irudikatzen. Irekita dagoen eskua kolore argiekin margotu dut, kolore naturalekin, eta kolpe bat hartzen ari da. Kolpe hori lehen aipatutako eraso horiek guztiak lirateke, eta beste eskuak geldiarazi egiten du: liskarrak denon artean aldatuko bagenitu, geldiarazteko gai izango ginatke.

**Kolorea, beraz, bakearen kolorea. Eta kolore gorria, erasoarena?**  
Su kolorea jarri diot suak beti erre egiten duelako, eta suntsitu egiten du. Su moduan irudikatu nahi nuen,

naturala dena erre egiten duelako. Aldarrikatu nahi dut naturak sua itzali dezakeela; hau da, guk, gizarteak, denon artean, eraso horiek guztiak itzali ditzakegula.

*“Mihisetan margotzen ari naiz, eta asmoa da nire kabuz erakusketa bat prestatzea”*

**Zer teknika eta material erabili duzu?**

Harriak arruntak dira, eta pintatu egin ditut. Nire eskuak erabilita, molde bat egin nuen ukabila eta beste eskua egiteko, eta igeltsuarekin

**Nola ailegatu zitzaizun Azken Muga jaialdian zure obra bat jartzeko proposamena?**

Arte Ederretako gradua ikasten hasi nintzen, eta Lekunberriko Luisa Aldaburu artistak proposatu zidan Azken Muga parte hartzea, berak ere jartzen baititu bere obrak han. Azkenean, esan nion animatuko nintzela, eta, hala, hau izan da parte hartu dudana aurreneko urtea.

**Bake naturala izena du zure eskulturak. Zer irudikatu nahi izan duzu?**

Desira baten gisara jarri dut Bake naturala. Naturan, gizakiaren historian, beti izan dira liskarrak: gerrak, erasoak... eta, horren aurrean, erresistentzia erakutsi nahi nuen. Irudikatu nahi nuen berez bakeak izan beharko lukeela naturala, baina ez dela hala gertatzen, errealitatean ez dugu hori ikusten. Eraso horietan ere sartzen dira emakumeek sufritzen



Irati Moreno. Arg: Irati Moreno.



'Bake naturala' eskultura. Arg: Irati Moreno.



eman nien forma. Nire eskuen forma da, erreala da. Igeltsua moldetik atera, lixatu, eta tenperak erabilia margotu nituen.

#### Zer motatako obrak egin ohi dituzu? Zer duzu gustukoena?

Denetatik egitea gustatzen zait, dena probatzea, baina hau izan da horrelako eskultura bat egin dudana aurreneko aldia. Probatu egin nahi nuen, eta hori atera da. Gehienbat, tenperekin eta akuarelarekin margotzen dut mihise gainean. Lehen, gehiago aritzen nintzen arkatzarekin, baina tenperekin saltsan ibiltzen hasi nintzen, eta horrekin nabil azkenaldian. Baina denetatik probatzea gustatzen zait.

#### Azken Muga jaialdirako espresuki egin zenuen obra hau? Edo egina zenuen dagoeneko?

Azken Mugarako egin nuen, bai. Erresistentzia zen proposatu ziguten

gaia, eta hortik tiraka atera zen ideia hori. Aukera nahiko irekia utzi zuten, baina ideia nagusia hori zen.

#### Beste artista batzuekin egoteko aukera izan duzu?

Oraingoz, oso gutxi. Behin bakarrik izan naiz han, eta ez zebilen jende asko. Pare batekin egon nintzen. Aurrrerago izango dut haiekin egoteko aukera.

#### Animatuko zinateke beste erakusketaren batean parte hartzea? Zer helburu duzu?

Mihisetan margotzen ari naiz orain, eta nire asmoa da erakusketa bat prestatzea, nire kabuz.

#### Artearekin lotura duen zerbaitean egin nahiko zenuke lan?


Artearekin lotura duen zerbaitean ikusten dut neure burua, baina irakasle lana ere probatu nahiko nuke, oraindik ez dakit. Idaztea ere



asko gustatzen zait, eta bi gauzak uztartu ahal izatea izango litzateke onena: erakusketak egitea eta irakaskuntzan aritzea.

#### Margotu, idatzi... denetarik egiten duzu. Nondik datorkizu sormena?

Nire etxean bertan ikusi dut dena, eta nik uste etxetik datorkidala. Nire amak ere margotu egiten zuen lehen; orain ez, baina beti animatzen dut margotzera. Nire aitak gitarra jotzen du, idatzi egiten du, poesian ere aritzen da... eta uste dut hortik datorkidala niri ere arterako grina. Naturalki ateratzen zaie haiei, eta, ondorioz, niri ere bai.




**NEKAZARI, S.L.**  
 Kubota  
 STIHL  
 ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa  
 Tel.: 948504128  
 Fax: 948504377  
 nekazaris@hotmail.com



**BIDEGOXO JATETXEA**  
 Jaunartzeak  
 Ezkontzak  
 Ospakizunak  
 Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia  
 20400-TOLOSA 943 577 573  
 info@bidegoxo.com

## UDAKO AZKEN ETA UDAZKENEKO LEHEN FESTAK!

*Irailen ere festaz bete dira asteburuak: Alliko, Arruizko, Etxarriko, Uitziko eta Baraibarreko herritarrek gustura ibili dira beren herriko jaiak ospatzen. Horiez gain, gainera, Lekunberrin Sagardo Eguna ospatu zuten irailaren 24an. San Martin jaien txanda izango da hurrengoa, azaroan, Gaintzan eta Aldatzen.*

22



Arruiz. Arg: Bernar Azpirotz.



Uitziko Arg: Eider Martirena.



Uitziko Arg: Eider Martirena.



Uitziko Arg: Eider Martirena.




Uitziko Arg: Eider Martirena.



Baraibar. Arg: Mikel Huarte.



Lekunberriko Sagardo Eguna.  
Arg: Labrit.



Baraibar. Arg: Mikel Huarte.



Lekunberriko Sagardo Eguna.  
Arg: Labrit.



# EUSKARALDIA

## HITZEZ EKITEKO GARAIA

2022ko azaroaren 18tik abenduaren 2ra



euskaraldia.eus

# Gerra ondorengo elizgizonak

*Gure herrietako historia ezagutzeko informazio iturri ezin hobekak izan ohi dira argazki zaharrak. Txurdanek honako hau bidali digu eta bere eskutik Gerra Zibilaren ondorenean zeresana eman zuten hainbat elizgizoni buruzko kontuak iritsi zaizkigu.*

24

“Don Angel Galartza Zabalak, Etxalekuko Parrokiako posesioa hartzea zuela-eta, hurbileko apez guztiak gonbidatu zituen. 1952ko otsailaren 13a zen.

Don Emilio Lintzoainek, hil artio Muskizko apez izandakoak, utzi zidan fotografia, atzean fotografiatuen izen guztiak ederki idatziak dituena. Don Inocencio Aierbek ateratakoa omen da.

Hil baino urte bakarren bat lehenago edo utzi zidan fotografia eta bertan ageri direnen zertzelada batzuk kontatu ere bai. Asko samar laburtuz, hona, banan-banan aipatutakoak:

## **Erljiioak pisu handia zuen**

Valeriano San Juan Saralegui, Zor-dian egon zen eta 1940ko hamarkadan Uhartera etorri zen eta bertan egon zen jubilatutako artio.

Nortasun handiko gizona, elizako dorrean omen zituen jarriak bozgorailuak eta arrosarioa bertatik ematen omen zuen herri guziarendako. Horrela ziren garai haiek, gerra ondorengoak, erlijioa oso presente zegoen, elizan eta elizatik kanpo. Hala ere, horrelakorik ez zen asko izanen. Sinestezina iruditzen zaigu oraingo garai hauetan, baina orduan gauzak hala ziren.

Beste behin, udalak festatarako boxeo ekitaldi bat edo kontratatu omen zuen. Apezari moralaren kontrakoa iruditu eta udalari ez ekartze-ko eskatu. Iskanbila bizkorra izan omen zuen udalarekin boxeo zela eta. Esana den bezala: lehen hala, orain hola eta gero ez dakit nola!

## **Hiketan aritzen ziren apezak**

Hiketan aritzen ziren hauek, gerra aurrean sortutakoak, denak. Seminaria, ondoren joanak, eta 1950etik 1960ra artean apez lanetan hasi zirenak.

Seminarioan hotza, eta jateko ere eskasia ezagutu zutenak. Hezkuntza gogorra, pedagogia ez zen izanen gaurkoa. Memoria behintzat asko erabili behar izaten zen. Beren herri ttikitatik atera gabeak, nekazari umeak. Euskara gutxietsia zegoen denborak sufritu zituztenak.

Bai, bai, guzi hori hala zen, baina... Osasun ona izan zuten gehienek. Kulturaz eta jakintzan ez ziren maingurak atera. Munduan ez ziren galdu, beste kolegio famatuetan ika-

sitakoekin ez ziren herabe. Eta, gehiago oraindik, euskaraz irakurtzen eta idazten ikasi zuten beste kolegioetan ez bezala. Eta halaxe zen, euskaraz irakurtzen eta idazten ez eze, gehientsuenak euskaltzaleak izan ziren; herri hauetan hauei esker iraun zuen euskarak.

Beren praktika osoa, mezak, sermoiak, euskaraz; doktrina haurrei ere bai. Euskara landu zuten beren irakurketetan. Eta Vatikanoko Bigarren Kontzilioa bete betean egokitu eta, honen aginduak betez, oraindik kemen gehiago jarri zuten euskara lantzeko.

Beren artean, aurreko apezak ez bezala, euskaraz aritzen ziren beti. Eta gehienik harritu nauena da, herrietako asko, adinkide zirenak bederen, hiketan aritzen zirela elkarrekin; hiketan aritzea ez hainen ongi ikusia zegoenean.

Euskara landu, herri-euskara maitatu, hiketa normal erabili eta euskararen aldeko lanean, indarra eta ahalegina egin zutenak. Bihoakie hemendik gure eskerrik beroena. Zuen etsenplua paregabea izan zen.

Hor ditugu gure alderdiko apez euskaltzaleak: Muskitz, Oskotz, Etxaleku, Ihaben, eta Berueten gerra ondoren egon zirenak. Edo San Migeleko D. Inocencio. Gerra aurreko erdaltzale pare bat ere badago. Betteez ez dezakegu deus esan, ez baitakigu”.



## Ez naiz zoriontsu

Aurrekoan idatzi nuen nola nengoen neska-lagunarekin izandako harremana bukatu ondoren. Tristura, mina, haserrea eta bakardadea, besteak beste, sentitzen nituen. Hiru hilabete pasatu dira eta orduan bezala ez banago ere, oraindik ez naiz ongi. Neska-laguna behar al dut ongi egoteko? Duela bi urte eta erdi, etxean itxi gintuztenean, aireportura joan behar izan nuen etxera itzultzen zen nire alabaren bila. Errepideetako polizia kontrol batean ertzain batek gaztelaniaz hiru galdera segidan egin zizkidan, alegia, nondik zatoz?, nora zoaz? eta zein helbururekin? Momentu hartan burura etorri zitzaizkidan erantzuna izan zen galdera horiek maiz egiten dizkiodala neure buruari baina haren aurpegi serioa ikusita, aireportura nindoala esan eta aurrera segitu nuen. Baina zertara etorri naiz bizitza honetara? Zoriontasuna izan daiteke nire bizitzaren helburua? Ezetz esango nuke, baina,aldi berean, zoriontsu izan nahi dut. Gutako askok uda pasatu dugu mendian gora eta behera, hondartzan, herrietako jaietan parrandan, bidaiatzen,... Guztiok helburu berarekin, hau da, ongi sentitu nahian. Nik Pirinioak aukeratu ditut nire joan-etorrietarako eta, gustura egon naiz neure buruarekin.. Baina erantzuna ez dago gauzak egitean, ni neu izatean baizik. Egiten dudanak lagun dezake, norekin egiten dudanak ere, besteengandik jasotakoak baita, baina nik neu izan behar dut, guztiz eta benetan, besteekiko bizi gabe. Hor eza-gutuko dut zoriontsu izatea zer den.



### Lehen lerroan (behealdean).

**1.-**Don Emilio Lintzoain Lintzoain, 25 urte zituen, 26 betetzear.

**2.-**Don Gregorio Andonegi, bera baino urte bat lehenago etorri zen Erasora.

**3.-**Don Manuel Rekalde. 1937. urteko otsaileko lehenbiziko ostegunean iritsia. Oskotzen hilabete bat apezik gabe egon omen ziren, Don Gabriel Zigandak alde egin baitzuen hau etorri baino lehentxeago.

**4.-**Don Angel Galartza Zabala. San Migeleko etxetik etorri zen Etxalekura 1945eko irailean. Sei urte pasa egin zituen ekonomo (kontularia) eta posesioa hartu zuen 1952ko otsailaren 13an.

**5.-**Don Miguel Arroki Loidi, Ode-ritzen zebilen parroko.

**6.-**Don Miguel Azpirotz Hualde, Oskozko Matxineko semea; lehenik Albiasun ibili zen apez eta ondoren Etxalekura etorri zen arte Aranatzan, koajutore.

### Bigarren lerroan

**7.-**Don Juan Martiarena, betaurrekoduna, Goldaratzen egon zen. Don Emilianok ez zuen bertan ezagutu. Seminariotik ezagutzen zuen. Soldadu jantzita ikusia omen zuen, gerra-

ren azken urtean mobilizaturik egon baitzen. Adin horretako gehienak bezala. Baraibarren aritu zen apez.

**8.-**Don Saturnino Zubeldia Ganboa, Arruazuko semea eta Irañetako apeza.

**9.-**Don Martin Azpirotz Azpirotz, Etxalekuko semea, Ramonena. Lehenik Baraibarren ibili zen apez, ondoren Beruetera pasa zen, handik Aldatzera eta azken urteak Eugin eman zituen. Bertan hil zen.

**10.-**Don Lucio Osteritz Lizarraga. Lizarraga Ergoienakoa zen eta 1935ean egin zen apez. Gorritin urtebete egin eta gero gerrara deitu zuten. Kapeilaua izan zen eta gazte hartu zuen erretiroa, 58 urterekin.

**11.-**Don Valeriano San Juan Saralegi. Irañetako semea zen eta Ziordian eta Uharte Arakilen ibili zen parroko, baita San Migelen ere. Aralarko San Migel Santutegian zen erretiroa hartu zuenean.

**12.-**Don Meliton Meoki Plaza. Honako hau Lekarozkoa zen, etxe oneko semea.

**13.-**Pedro Jose Ariztimuño Galartza. Uitziko semea zen. Ihabenen zenbait urte eman eta gero, Arruatzura joan zen.



## Aurkeztu dituzte Beti Kozkorreko denboraldiko 11 taldeak

Denboraldi honetan, 11 talde arituko dira Lekunberriko Beti Kozkor Kirok Elkartearen, 248 futbolari denera. Aurten, gainera, 25 urte beteko dira 1997an futbolzale talde batek kluba sortu zuenetik, eta sasoi betean iritsi da urteurrenera, Gorka Azpiroz Beti Kozkorreko Zuzendaritza Batzordeko presidentek nabarmendu zuen bezala.

Bestalde, Azpirozek azaldu zuenez, azken hilabeteotan klubak aldaketak izan ditu egituraren. Besteak beste, Zuzendaritza Batzordea duela gutxi berri-  
tu da, eta koordinatzaile nagusiaren figura gehitu. Mikel de Carlos da burua, eta harekin daude Roberto Centeno, Araitx Irastorza eta Beñat Barberena. Denboraldi honetarako beste beritasun bat 2026ra arte Osasunarekin sinatutako hitzarmen bat da. Izan ere, kluba Realarekin zazpi denboraldi egin ondoren itzuli da gorritxoaren familiara.

## Lau eta Erdiko Txapelketa, Lekunberriko festetan

Urriaren 7an hasiko dira Lekunberriko festak, ostiralarekin, eta, antolatutako egitarau zabalaren barruan, pilota partidek sona handia izango dute; izan ere, Lau eta Erdiko Txapelketako final zortzirenak jokatu dira Jaian Jai pilotalekuan urriaren 9an, 17:00etan. Aurrena, Dariok eta Agirrek jokatuko dute. Ondoren, Al-tuna Illak eta Martijak aurrez aurre izango dituzte P. Etxeberria eta Zabaleta. Sarrerak Albi eta Aurrera tabernetan, Plazaola kiroldegian edota udaletxean eros daitezke. Interneten: [www.entradasfronton.com](http://www.entradasfronton.com) helbidetan (30 eurotik aurrera).



**CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.**  
HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:  
948 50 43 31  
Lekunberri

Errotaldeia 19,  
Lekunberri

**MARTILLO TXIKI**  
PERKUSIO ESKOLA

[www.martilotoxiki.com](http://www.martilotoxiki.com)  
679 938 016

**NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA  
ARLOETAKO HORNIGAIK  
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA**

**URZUBI S.A.**

Tel. 948 50 42 41  
Fax 948 60 45 20

Lekunberri  
[urzubi@hotmail.com](mailto:urzubi@hotmail.com)

**Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean**  
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta  
14:30etatik 17:00etara

rey del bacalao

**Super mar**

**BACALAO  
ELKANO  
S.L.**

Industrialdea, 11  
31870 Lekunberri - Nafarroa  
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792  
[bacalaoselkano@jet.es](mailto:bacalaoselkano@jet.es)  
[www.bacalaoselkano.com](http://www.bacalaoselkano.com)



# Hitz aspertuan



● ● Agurtzane Altuna

## Kaxon

*Bi zakur eme dauzkuu etxean. Udan kaxon eon dee biik; aurrena bat jarri zen kaxon, eta inbidik jota bezala, seittun jarri zen bestea. Zakur emea altan daunean kaxon daula esaten da gurean.*

*Hala, etxeko bi zakurrek kaxon eukita seittun hasi zen etxe inguruko kortejatzea re; zakur arran desfilea. Gordean, itxita jarri giñun bi zakurrek eta been in beharrak itteko bakarra ateatzen giñun itxituretik. Biin bitartean, suelto-suelto ta normalean baño gehiotan gañea itten zuen desfileko matxitoak pixe parrazta etxe ingurutan. Been tokie markatu nahian; beak estalitako, beak hartutako, been jabetzako emean tokie mugatu nahiean. Azindatan normala da pixe-parraztakin markatzea mugak. Kertena atea ta prast...*

*Zakur emeak lan haundik dittola; urtean bitan kaxon jartzen dela ta hasten deneako ta pasatzen zaioneako bazpare pare'at aste pasa behar duela gordean; beti bildurrik. Hustu ta kitto.*

*Pasa txokoa!*

*Orokortue daun teoria ongi ikasie daukuu. Beste kultura batzutan re hala izatea: emakume jaiotzea gutxin-gutxinean zailegoa da. Eme jaiotzea lurpean sartzeko añeko karga da (eta ez naiz zakurkumetaz bakarrik ai).*

*Bi zakur eme eukitzean suerteak, emEkume izateak don suerteakin konparazio ttiket ittea eaman nau uda hontan, aizue.*

*Larrutan ittea arnasa, loa ta jana bezalaxe behar fisiologikoa omen. Kontrolatzen ikasten da; eakusten digue baño batzui beste batzui baño gehio, emateonez. Nolatan bestela zakur emea beti gordean, beti bildurrik eta arrak lasai pixe daiela; haik ezingo baitie, noski, been behar fisiologikoai eutsi.*

*Gauze bea pasatze ote da ba bi hankako arrakin. Emeak titi erdie bisten eamateak ez do esan nahi arrak beste erdiei heltzeko eskubidea daukenik. Kontrolatu, aizue, kakaleai eusten diozuen bezalaxe.*

*Amaia Agirrei leittu giñion "ziztadaren beldurra ote zen edo beldurraren ziztada". Azken honen aldeko apustue ingo nuke, dena galtzekoa ez balitz. Noski dela bildurren ziztada. Zakur arrak hartuko ote don bildur; etxea bakarrik bueltatzeko bildur; ezezkoan jartzen bada o titi erdie bixten geatzen bada hozkatue izango den bildur...*

*Pasa txokoa!*

*Zakur arrak, zuun harrotasune ta artasune kontrola zazue faborez, emeok txokoan bizi ez gattezen!*

# Haurrek gehien, gazteek eta helduek gutxien

Soziolinguistika Klusterrak egindako kale neurketaren arabera, bi lagunetik batek baino gutxiagok egiten du euskaraz Lekunberri, azken 20 urteotan erabilera nabarmen igo den arren: 21,6 puntu. Haurrak daudenean nagusiek gehiago egiten dute euskaraz, haurrak ez daudenean baino.

Soziolinguistika Klusterrak Lekunberri 2021ean egindako hizkuntzen erabileraren kale neurketari buruzko emaitzak aurkeztu ditu. Olatz Altuna proiektuaren zuzendariak eman zuen ondorioen berri, eta azaldu zuen kalean behatutako bi lagunetik (ia) bat entzun zutela euskaraz: %48,3 aritu ziren euskaraz, %49,4 gaztelaniaz eta %2,2 beste hizkuntzaren baitan.


2001. urteko datuekin alderatuta, Lekunberri igo egin da euskararen erabilera; izan ere, %26,7 izan zen klusterrak urte hartan emandako datua, eta gaztelaniaz, berriz, %73,3 aritu ziren. Beraz, euskararen erabilera 21,6 puntu igo da urte hauetan, Klusterrak egindako azterketen arabera.

Sexuen arabera, aldea izan da emakumezkoen eta gizonezkoen artean: emakumezkoen %51,6k egin dute euskaraz 2021eko azterketan, eta gizonezkoen %45,3k. Beraz, oro har, emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz kaleetan, adinekoen kasuan izan ezik.

Adinaren arabera, deigarria da alde handia dagoela haurren arteko elkarrizketetan, gainerakoekin alderatuta: 2 eta 14 arteko haurren %68,9k egin dute euskaraz, baina 15 eta 24 urte artekoen artean nabarmena izan da jaitsiera: %37k bakarrik egin dute euskaraz, eta hori izan da adin tarte guztietan izandako alderik handiena. 25 eta 44 urte artekoen artean, berriz, %53,7k egin dute gaztelaniaz eta %43,8k euskaraz. Heldu nagusien kasuan ere nabarmentzekoa da %38,6k baino ez dutela egin







Hizkuntzen kale erabilera adinaren arabera Lekunberrin (2021).  
Grafika: Soziolinguistika Klusterra.

euskaraz, ia gazteen pare. Adinekoek %46k egin dute euskaraz eta %52,9k gaztelaniaz.

Haurren presentziak, baina, nagusiengan euskararen aldeko eragina duela ikusi dute: haurrak eta nagusiak nahastuta daudenean, euskararen erabilera %69,3ra igotzen da. Kontuan hartu nagusien artean %37,6koa bakarrik dela erabilera, haurrik gabe, alegia.

### EUSKARALDIRAKO IZEN-EMATEA, IREKITA

*Belarriprest* eta *ahobizi* gisa Euskaraldian parte hartu nahi duen orok izena emateko aukera dauka jada, eta Euskaraldia hasi arte egongo da zabalik epea. Aurten, ordea, aurreko urteetan izena eman zutenek parte hartzea berretsi baino ez dute egin

**5 eta 24 urte artekoen %37k bakarrik egin dute euskaraz**

beharko, [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus) webgunean sartuta edo posta elektronikokoan jasoko dituzten mezuen bidez. Azaroaren 18tik abenduaren 2ra eginen euskararen erabilera sustatzea helburu duen ariketa soziala.

Maiatzean ireki zen entitateek *ariguneak* osatu eta ariketan izena emateko aukera, eta oraindik ere urriaren 31 arte mota guztietako entitateek (denda, elkarte, kirol-talde, enpresa edota erakunde) aukera izanen dute ariguneak identifikatu eta Euskaraldian talde moduan parte hartzeko.



**Hostal Betelu**

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak: 948513026 618557889

**AMAIRU BAR**

GTXGKO PIZZAK, KOPA BERGIZIAK

948504352

**ALIPROX** Lekunberri

*janaridenda*

hamabostaldi eskaintza bereziak

**CONSTRUCCIONES**

**ERAIKUNTZAK**

**CONSTRUCCIONES URANGA/SAIGÓS, S.L.**

TEILATUAK

FATXADAK

ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri



## MENDIALDEKO AKTIBAZIO SOZIOEKONOMIKORAKO PLANA ONARTZEKO BIDEAN DA

Urteko lehen seihilekoan egindako diagnostiko fasearen ostean, datozen 3 urteetarako Ekintza Plana diseinatzen ari da Mendialdea. Hau da orain arte egin duen lehen Eskualdeko Aktibazio Sozioekonomikorako Plana. Garapenerako ahalmen handiagoa duten bost sektore ekonomikorekin lan egingo da: Elikadura osasuntsu eta jasangarria, Energia Berdearen Industria, Industria orokorrean, Turismo jasangarria eta Merkataritza eta Ostalaritza.

Orain arte egindakoa eskualdeko biztanleekin alderatu nahi du, eta, horretarako, foro ireki bat antolatu dute: Leitzako Herri Aretoan izango da, urriaren 25ean, 17:00etan. Ezinbestekotzat jo dute herritarren iritzia gehitzea bide orrian. Izen-ematea: 606 40 86 14. Larraun, Araitz, Betelu eta Lekunberri daude Planaren Talde Eragilea osatzen dutenen 11 udalen artean.

### Cederna Garalur, sustatzaile

Cederna Garalur Tokiko Ekintza Taldeak Nafarroako Mendialdearen garapen sozioekonomikoa bultzatzea du bere izateko arrazoia, eta Aktibazio Planaren sustatzailea da. Cederna Garalurrek, Plazaola Partzuergo Turistikoak eta eskualdeko 11 udalek osatzen dute Planaren Talde Eragilea (Areso, Arano, Goizueta, Leitza, Larraun, Araitz, Betelu, Larraun, Lekunberri, Imotz eta Basaburua), beronen ordezkari eta bermatzailea izanik.



**aseguru  
gintza  
XXI**

**ASEGURU  
AHOLKULARIAK**

*Zure ondarea eta segurtasuna  
babesteko modu bakarra  
behar bezela aseguratua  
egotea da*

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



**urrutia  
enea**

etxeko hestekiak

**LEKUNBERRI**

**INFORMATIKA ARALAR**  
LEKUNBERRI - ARAITZ  
LARRAUN  
JALMENTA ETA KONPONTZEA

634 551 743  
infoaralar@gmail.com

**SAN MIGUEL**  
Taberna-Jatetxea  
Arribe  
948 51 31 34



**TAXILON**

661 202 249  
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com

Lontxo Otamendi Artola

Atallu - Araitz



**SOTIL GARAJEA**

**BETELU**

948 513 007  
sotilgarajea@gmail.com



## AGENDA

### URRIA

6 - *Los grandes árboles de Aralar desde el punto de vista de los escarabajos* hitzaldia, Alberto de Castroren eskutik. 19:00etan, Antonea Etxean.

7 - *Beatriz Egizabalen 'Magma mia' bakarrizketa*, Azkarateko kontzeju etxean, 19:00etan.

8 - Behaketa astronomikoa Larraun bailaran. 20:30ean, Antonea Etxean.

14 - Hegaztiei eraztun zientifikoak jartzek hasteko ikastaroaren alderdi teorikoa. 17:30ean, Antonea Etxean. Izen-emateko: <https://bibe.be/ekitaldiak-aranzadi>

15 - Hegaztiei eraztun zientifikoak jartzek hasteko ikastaroaren irteera. 9:00etan, Antonea Etxean.

16 - Larraungo bailara eta Aralarko mendilerroko dibertsitate fungikoa ezagutzeko irteera. 10:00etan, Albiko parkalekuan.

20 - *Los anfibios del Valle de Larraun y Sierra de Aralar* hitzaldia, Alberto Gosáren eskutik, 19:00etan, Antonea Etxean.

20 - *Kontsumituko dugun energiaren ardura hartzera goaz* izenburupean, hitzaldia Mendialdea Mankomunitateak antolatuta, Goiener taldearen eskutik.

21 - Printza: *Gogor elkartasun biltegiaren ibilbidea eta aurtego erronkak* hitzaldia, 19:30ean.

25 - Mendialdeko aktibazio sozioekonomikorako planaren parte-hartze foroa, herritarrei zuzendua, Leitzako Herri Aretoan, 17:00etan.

30 - Printza: *Nola igaro da Larraun nekazaritzatik abelzaintzara? 70. hamarkadatik honako bilakaera eta gaur egungo egoera* hitzaldia, 17:00etan.

30 - Araizko Zaporeak azoka, Arribeko plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Arribe-Atalluko frontoian.

### TXIMISTA FEST

#### Urriak 15, Errazkinen

10:45ean, karabana Errazkinera (Surtidoretik)

11:00etan, txupinazoa

11:15ean, Kantujira

Ondoren, pintxo-potea

14:30ean, bazkari autogestionatua

16:00etan, mojitada

17:00etan, bingoa

19:30ean, Gabezin taldea

21:00etan, ogitartekoak salgai

22:00etan, Gabezin taldea

**00:00etan**, musika

\*Eguraldi txarra eginez gero, Betelun

## MERKATU TXIKIA

### SALGAI

► **Bizikletako kasko integrala.** S1X S1X ONE marka, M taila. Kaskoaren funda opari. 155€ **Tlf: 606 04 25 11.**



► **Bigarren eskuko furgoneta** (Berlingo edo antzekoa) erosiko nuke. Saltzeko asmorik baduzu, mesedez, hots egin telefono zenbaki honetara: **699 63 00 04 (Iñaki)**. Mila esker.

**M. Angeles Urrizalki**  
iragarkiak,  
berriak,  
eskelak...

**Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala**

948513056  
699179437

**Atabal**  
okindegia

Era askotako  
ogiak eta gozoak

Etkez etxe  
banatuko dugu

Ogia enkargatzeko...  
**948513151**

**MAITE HARATEGIA**

**BERTAKO HARAGIA**  
Txistorra, txorizoa,  
saltxitxak,  
sukaldatutako  
platerak.  
Etxera eramateko  
zerbiltua ere  
eskeintzen dizugu.

Antigua kalea 7  
31890 BETELU

948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

# LEKUNBERRIKO FESTAK

## Urriak 7, ostirala

- 12:30etan, meza
- 14:00etan, jubilatutako bazkaria Ayestaran Hotelean. Ondoren, musika
- 19:00etan, 2022ko kartelaren sari-banaketa, Batza aretoa
- 19:30etan, txalapartarekin jaiak deitzea
- 20:00etan, txupinazoa. Iraunkorrek txaranga
- 20:05etan, zezen suzkoa
- 22:30etan, gazte afaria karpan. Urriaren 4a baino lehen eman behar da izena, Ilagi edo Amairu tabernetan (15 euro)
- 00:30etan, Trikidantz. Ondoren, DJ Oixani

## Urriak 8, larunbata

- 9:00etan, dianak
- 12:00etan, puzgarriak alde zaharrea
- 12:00etan, electroPoteoa Burrenba elektrotxarangarekin, Ainhoa parean
- 15:30etan, 4x4 Trial erakusketaldia Sagardotegi atzean
- 17:00etan, AtsaldeON. Aurrera tabernako terrazan "denetarik". Ilargi taberna "Technoa"
- 18:00etan, pala partiduak. Neskak
- 18:00etan, Xaiborrekin mozorro festa eta ondoren zezen suzkoa karpan
- 20:00etan, BatuLe Batukada, Ainhoa parean
- 23:00etan, Peppermint Sextet eta Calathea taldeen kontzertua, Printzan
- 00:00etan, Antxon Saez. Bambola DJ

## Urriak 9, igandea

- 9:00etan, dianak
- 11:00etan, Lekunberri-Larraun erraldioen konpartsa, kiroldegitik
- 13:00etan, aizkolariak herriko plazan
- 14:00etan, kalderete lehiaketa Plazan egin beharko da.
- 13:00ak baino lehen eman izena. Saria: urdaiazpiko bat
- 17:00etan, pilota partidak. Profesionalak
- 19:30etan, bertso-saioa: Unai Iturriaga, Julio Soto, Maialen Lujanbio eta Nerea Ibarzabal. Karpan
- 22:00etan, zurrakapote afaria, karpan. Izena eman urriaren 4a baino lehen, Mitxausean
- 00:00etan, Laiotz eta Dj Oixani

## Urriak 10, astelehena

- 9:00etan dianak
- 11:00etan, haur krosa, udaletxean
- 12:30etan, Potx magoa, Printzan
- 13:00etan, patata tortilla lehiaketa. Eman izena 12:00ak baino lehen, Euskalduna tabernan
- 14:00etan, herri bazkaria. Mozorroa: Wenster. Bingoa eta bazka-londoa Pancho Valbuenarekin. Paella: 8 euro. Ticketak urriaren 4a baino lehen San Joan Gizarte Egoitza eta Ainhoa tabernan
- 17:00etan, haur jolasak eta txokolatada herriko plazan
- 17:00etan, poker txapeketa, Ayestaran Hotelean
- 17:00etan, Txapela jaurtiketa, Ilargi tabernan
- 19:30etan, pintxo eguna. Lekuonberri, Centro Cívico, Ainhoa, Aurrera, Albi eta Euskalduna
- 20:00etan, zezen suzkoa
- 00:00etan, Wenster gaua Ilargi tabernan

## Urriak 11, asteartea

- 9:00etan, dianak
- 11:00etan, 2021 ean jaiotakoei zapi banaketa
- 11:30etan, Martillotxiki batukada eta Lekunberriko trikitilariak, karpan hasita
- 12:00etan, Suziti Txikia
- 12:05etan, puzgarriak eta txu txu trenak, alde zaharrea
- 14:30etan, kuadrilla bazkaria Ayestaran Hotelean. Eman izena urriaren 4a baino lehen, hotelean bertan
- 17:00etan, mus txapelketa Ayestaran Hotelean
- 17:00etan, puzgarriak eta txu txu trenak alde zaharrea
- 17:00etan, AtsaldeON. Aurrera terrazan "denetarik". Ilargi taberna "Technoa"
- 20:00etan, zezen suzkoa
- 23:30etan, Modus Operandi, Tirri&Tery eta DJ Oixani

## Urriak 12, asteazkena

- 9:00etan, dianak
- 11:00etan, meza
- 11:00etan, Lekunberri-Larraun Erraldoi konpartsa, alde zaharretik hasita
- 12:00etan, 25 urtez geroa eraikitzen. Udalaren kolaboratzaileekin topaketa
- 13:00etan, Euskal Dantzak. Herriko plazan, tirkitauki dantza taldea
- 14:00etan, bertso-bazkaria Oihane Perea eta Beñat Gaztelumendi bertsolariekin, Printzan
- 17:00etan, 1. mailako aizkora kanporaketa eta arpara finala mistoa karpan
- 18:00etan, pilota partiduak. Afizionatuak
- 18:30etan, pilota partiduak, haurrak
- 20:30etan, Puro Relajo